



1. Komunikazio egoerak, berez sortzen direnak edo gidatuak, solaskide ezagun eta ezezagunekin diskurtso ordenatua eta koherentea erabiltzea.
2. Ahozko testuak entzutea eta erreproduzitzea, testuingurua, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Hiztegia aberastea, ahoz laburtzea.
3. Ahozko testuak ekoiztu: deskribapena errazak, definizioak, elkarrizketak, argudioak, iritziak eta eztabaidak.
4. Testu literarioak prosan eta bertsoan.
5. Ahozko testuak ulertu eta ikaskideen artean adierazi.
6. Ahozko testuak irakurri, errezipitatu eta antzeztu.
7. Komunikazio azalpenak: diskurtsoaren antolaketa, azalpen estrategiak eta arauak.
8. Ahozko hizkuntza ikasteko estrategiak: entzutea, datuak biltzea eta galdetzea.
9. Intonazioa eta ahoskera.

ADIERAZLEAK

1. Gelatik kanpo dagoen pertsona bati zerbait eskatzerakoan edo informazioa ematerakoan nola adierazi: baldintza erabili.
 - Galdetegi baten bitartez informazioa lortu gai jakin bati buruz, galdetegi zuzena.
 - Iritzia nola adierazi eta iritzia emateko informazioa jaso (“nire ustez”, “nik ez dut uste”,...). Eskolako gertaera bati buruz, iritzia emanez parte hartu: gatazka simulatu bat sortu, iritzia eta argudioa eman.
2. Ahozko testuen aurrean (telebista, irratia, narrazioa, deskripzioa, azalpen testua) ulermena lantzea (hipotesiak erabili) ideia nagusiak eta menpekoak bereiziz. Aldi berean, erantzuten jakitea: gorputzez, ahoz, keinuz, emozioak agerian ipiniz.
3. Oinak emanda koplak sortzea.
4. Solasaldietan solaskideari kasu egin, begietara begiratuz eta elkarrekiko jakin-mina jasoz.
5. Hiru estrategia hauek direla medio (irakurketa, adierazkortasuna eta ahoskera) antzerki laburrak asmatu eta antzeztu.
6. Hitz egin aurretik eskema errazak prestatzen jakitea.
7. Azalpen bat beste modu batez egin, astiroago hitz eginez eta adibideak ipiniz.
8. Euskal fonemak ahoz ongi bereiztea (tz, tx, ts, tt, s, z, x)
9. Lagunarteko esapideak erabiltzea: “alajaina”, “dudarik gabe”, “pentsatzea ere”, “bost axola”.